

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Mendizabal Lizarralde Surra

*Bergara,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Surraga baserrian jaioa. Aita San Antoniokoa zuen eta ama Artekalekoa, baserrira ezkonduak. Zazpi anai-arrebatan bigarrena zen Jabier. Dantza irakaslea izan da 40 urtean. Gurasoek ere dantza-lehiaketatan hartzen zuten parte, eta esan daiteke zaletasuna etxetik datorkiola. [Maite Barrena](#) emaztearekin batera elkarrizketatu dugu Bergarako dantza kontuak jasotzeko, biek lan handia egin dutelako herrian.

Zintak

BER-346

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-01
- **Iraupena:** 103 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Dantza-txapelketetan nola hasi ziren

- **Erref:** BER-346/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gazte-Alai dantza-taldean ezagutu zuten elkar Maitek eta Jabierrek, dantza-bikote zirelako. Antzuolan dantza-txapelketa baten parte hartu zuten eta horrela hasi ziren herriz herri dantzan. Koreografiak beraiek sortzen zituzten, txapeldunen urratsak oinarri hartuta. 1966an Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten.

2. Baserriko-lanetan umetatik

- **Erref:** BER-346/007
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Surraga baserrian jaio zen Jabier eta baserriko lanetan ibiltzen ziren. Eskolara joan aurretik, esnea banatzen zuen astoarekin. Herriko eskolan ikasi zuen, dena gaztelaniaz. Gaztetatik auzolanean ibiltzen zen beste baserriekin. Ezkondu eta gero ere, baserriko-lanetan laguntzen aritu izan da.

3. Gurasoak ere dantza-txapelketetan fin

- **Erref:** BER-346/008
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Jabierren gurasoak ere dantzariak ziren eta dantza-txapelketetan aritzen ziren, baina ez zieten seme-alabei erakutsi dantzan egiten. Erromerietan hasi ziren dantzan.

4. Hogeita bost urtez Gazte-Alai dantza-taldean

- **Erref:** BER-346/009
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:17:46. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gazte-Alai dantza-taldean nola hasi zen dantzan kontatzen du Jabierrek. Hogeita bost urtez aritu zen taldean. Aitak ilusio handia zeukan.

5. "Bergarako besarkadan" egindako brokel-dantza

- **Erref:** BER-346/012
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:22:17. **Bukatu:** 00:25:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

"Bergarako Besarkada" izan zen urtean ez zen jairik egon, baina hurrengo urtean bai. Bergarako dantza-taldeak brokel-dantza egin zuten, egun berezi horretarako prestatuta. Ospakizuna nolakoa izan zen kontatzen dute. Gerra aurretik dantza-txapelketak antolatzen ziren Bergaran.

6. Gazte-Alai dantza-taldearen hasiera

- **Erref:** BER-346/014
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gazte-Alai dantza-taldea 1957 urte inguruan sortu zen. Dantzari eta irakasle batzuk aipatzen dituzte. 20 bat laguneko taldea zen; Ramon txistularia eta Joakin irakaslea.

7. Haurren dantza-taldea sortu zuten; irakasleak

- **Erref:** BER-346/015
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Maite eta Jabier hasi ziren haurrei dantza-eskolak ematen 1965ean. Herriko jendeak ilusioz hartu zuen eta laguntzeko prest agertu ziren: lokalak utziz, argia partekatuz... Haur asko apuntatzen zenez, irakasle gazte batzuk sartu ziren klaseak emateko eta Bergaran bost lokal ezberdinetan aritzen ziren. Irakasle batzuk aipatzen dituzte.

8. Balentin Berriotxoaren omenezko dantza

- **Erref:** BER-346/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:37:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Mutilen dantza-taldea bakarrik zegoenean, Gipuzkoako eta Bizkaiko dantza batzuk egiten zituzten: ezpata-dantza, arku-dantza, zinta-dantza... Etxaniz anaiek Balentin Berriotxoaren omenez sortutako dantzari buruz hitz egiten dute. Elorrion dantzatu zuten lehenengo aldiz eta gaur egun ere, dantzatzen da.

9. Boluntario bezala euskal dantzak irakasten

- **Erref:** BER-346/017
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Maite hamasei urterekin hasi zen dantza klaseak ematen, herriko batek utzitako lokal batean eta etxean zeukan disko-jogailu batekin. Eskola guztiak boluntario bezala eman dituzte, bai beraiek eta baita beraien ondorengoek ere. Ilusio handia zeukaten.

10. Dantza pausu berriak besteei ikusiz ikasia

- **Erref:** BER-346/018
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:40:31. **Bukatu:** 00:42:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Maitek beste dantzarien pausuak ikusita ikasteko erraztasun handia izan du beti. Gero Jabierri irakasten zizkion pausu berriak. Inoiz ez dute dantza irakasteagatik kobratzerik nahi izan. Dantza-txapelketetan lagun asko egin izan dituzte.

11. Ikastolako dantza-taldetik irtendako bikote txapeldunak

- **Erref:** BER-346/020
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Ikastolako dantza-taldea sortu zenean, Osintxuko Moises Azpiazu dantzaria zen irakaslea. Berak banakako dantza egiten zuenez, Jabierri laguntza eskatu zion taldeko dantzak ere irakasteko. Urte batzuk pasatuta, Moisesek taldea utzi zuen eta Jabierrek jarraitu zuen dantza-taldearekin eta sortutako bikoteekin lanean. Dantzari asko aipatzen dituzte: Edu Muruamendiaraz, Xabier Mujika, Aintzane eta Jaione Arana ahizpak, Mirentxu Berasategi, Joseba Aseginolaza...</p>

12. Dantza-txapelketak haur eta gazteekin; Haurren eguna

- **Erref:** BER-346/021
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Ikastolako dantza-taldetik sortutako dantza-bikoteak txapelketa ugaritan egondakoak dira. Txapelketak non eta noiz izaten ziren kontatzen dute. Ume asko dantza-taldean; nagusienak jartzen zituzten txikiagoei irakasten. Haurren eguna antolatzen hasi ziren, bakoitzean eskualdeko herri desberdin batean. Euskal Herri mailako txapelketa ere antolatu zuten lehen aldiz.</p>

13. Bergaran lehenego Haurren eguna antolatu zutenekoa

- **Erref:** BER-346/022
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:48:13. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Bergaran lehenengo aldiz Haurren dantzari eguna antolatu zutenekoa kontatzen dute. Inguruetako 1200 haur apuntatu ziren eta herriko etxeetara joan ziren bazkaltzera. Dantza klaseetarako, ikastolak gelak, gimnasioa, korridoreak... uzten zituen.</p>

14. Gazte-Alai dantza-taldearen entsegu lekuak

- **Erref:** BER-346/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Gazte-Alai dantza-taldea non entseatzeko zuen: frontoian, batzoki zaharrean, Zabolategiko dorrean...

15. Xamatx dantza-taldearen sorrera I

- **Erref:** BER-346/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Ikastolan, 6-14 urte bitarteko hurrekin ibiltzen ziren. 14tik gorakoek Xamatx dantza-taldea sortu zuten. Jabierrri laguntza eskatu zioten, taldea antolatu eta koordinatzeko. Hamar urtez aritu zen beraiekin. Euskal Herritik kanpo ere joaten ziren.</p>

16. Dantza-irakasle ikastaroa

- **Erref:** BER-346/028
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:58:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Donostiako Goizaldi dantza-taldeko irakasle batzuk Bergarara eramaten

zituzten asteburuetan, dantza zehatz batzuk irakastera. Dantza-irakasle ziurtagiria nola lortu zuen kontatzen du Jabierrek.

17. Amaia ezpata-dantza eta xake jokoaren dantza

- **Erref:** BER-346/029
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:58:47. **Bukatu:** 01:01:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Amaia ezpata-dantza nola sortu zen. Behin, xake jokoan oinarritutako dantza bat egin zuten. Dantzariak piezak ziren. Debako dantza-taldeari utzi zioten materiala.

18. Moises Azpiauren omenezko eskola eta txapelketak

- **Erref:** BER-346/030
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:01:14. **Bukatu:** 01:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Moises Azpiazu hil zenean, haren iloba bat dantzak irakasten hasi zen ikastolan. Osabaren izena jarri zion taldeari. Dantza-txapelketak ere badaude haren omenez.

19. Xamatx dantza-taldearen sorrera II

- **Erref:** BER-346/031
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Xamatx dantza-taldea 1992. urte inguruan sortu zen. Gaur egun, jaietako erraldoiak eramaten dituztenak dira. Kanpora asko joaten dira.

20. Gaztetan, nesken artean gazteleraz

- **Erref:** BER-346/032
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:04:52. **Bukatu:** 01:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskal dantzen klaseak beti eman dituzte euskaraz. Giroa beti euskalduna

izan da. Maitek eta Jabierrek euskararekin duten lotura kontatzen dute. Gaztetan, nesken beraien artean gaztelaniaz.

21. Gurasoei izan ezik, beti hika

- **Erref:** BER-346/033
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:07:27. **Bukatu:** 01:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Jabierrek beti hika egin izan du, gurasoekin izan ezik.</p>

22. Euskal kulturaren errepresioa frankismoan

- **Erref:** BER-346/035
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:10:09. **Bukatu:** 01:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Frankismo sasoiaren, Segurako txapelketara joan ziren batean, polizia agertu zen eta abade batek esan zien nondik ihes egin. Legazpin, haurrekin zeudela, polizia agertu eta etxeetan ezkutatu ziren.

23. Marian Arregiren eta Urbeltzen lagun handiak

- **Erref:** BER-346/036
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:11:24. **Bukatu:** 01:15:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Maria Angeles Arregirekin eta Juan Antonio Urbeltzekin harreman estua izan dute. Maria Angeles oso dantzari fina zen, nahiz eta gero musikagintzarekin harreman handiagoa izan. Musikariekin ere harremana izan dute, beste herri batzuetan ikusiak eta Bergaran ospatutako jaietara edo jaialdietara.

24. San Martzialako sokadantza

- **Erref:** BER-346/037
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:15:17. **Bukatu:** 01:16:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Garai batean, San Martzial egunean egiten zen sokadantzan, normalean adindunek hartzen zuten parte. Izen batzuk aipatzen dituzte.

25. Txapelketetako dantzarien artean oso giro ona

- **Erref:** BER-346/038
- **Iraupena:** 0:06:32. **Hasi:** 01:16:46. **Bukatu:** 01:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Behin, Ondarroatik 40 hurrekin nola bueltatu ziren kontatzen du Jabierrek. Garai batean herriko pertsonaia garrantzitsuenak alkatea, abadea, medikua, albaiaria... izaten ziren. Bergarako txapelketa batean eta Arrateko beste batean izandako istorioak kontatzen dituzte. Oso giro ona zegoen dantzarien artean.

26. Dantza irlandarrak ikasten

- **Erref:** BER-346/039
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:23:18. **Bukatu:** 01:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Urtero, inauterietan, Bergarako Musika Bandak musika gertakari batekin lotzen du. Behin Titanic-aren hondoratzea antzeztu zuten eta Xamatx taldeko dantzariekin dantza irlandar bat prestatu zuten.

27. Bergarako musika eta dantza eskola

- **Erref:** BER-346/040
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:25:15. **Bukatu:** 01:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Gaur egun ez dago euskal dantzen talderik, baina klaseak bai. Urteetan lan egin zuten musika eskolarekin batera dantza eskola egoteko. Dantzetan oso mutil gutxi apuntatzen dira. Musika eskolan ere, mutil gutxi. Udal dantza eskolak ez du arrakasta handiegirik izan.

28. "Promocion Cultural Vergaresa" eta UNED-a Bergaran

- **Erref:** BER-346/045
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:32:39. **Bukatu:** 01:34:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

"Promocion Cultural Vergaresa" elkarte oso garrantzitsua izan zen Bergaran. Sortzaileak: Joakin Etxaniz, Fernando Lasa, Binixio Berasategi, Fernando Etxeberria... Bergarako UNED-a ere sortu zen.

29. Sukaldari fina

- **Erref:** BER-346/049
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:36:47. **Bukatu:** 01:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Jabierrek sukaldaritza oso gustuko du. Hainbat bataio, jaunartze eta jaietan sukaldari bezala aritu da. Inoiz ez du ezer kobratu, baina opariak egin izan dizkiote.

30. Bergarako "Alkartu Nai" elkarte

- **Erref:** BER-346/051
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:38:39. **Bukatu:** 01:40:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

"Promoción Cultural Vergaresa" eta "Alkartu Nai" elkarteei buruz hitz egiten dute. Jendeak ilusioa zuen eta gauzak egiteko gogo zegoen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com